

Gabriel Arestiren poesia eta Gerra Zibila.

Euskal tragedia

Jon Kortazar

UPV/EHU

Laburpena

1936-1939 urteen arteko Gerra Zibilaren azterketa sakona izan da eleberraren alorrean, ez horrenbeste poesian. Euskal Tragedia Gabriel Arestik (1933-1975) idatzi zuen poema 1960-1961ean Zuzenbide debekatua deituriko lanean sartu zuen. Poema kubista deitu dugun honetan Gerra Zibilak lehen mailako garrantzia hartu du. Poemak Euskal Herriaren irudi berezia eman du herri juduarekin parekatuz, eta frankismoaren gizartearen iritzi gupidagabea emanez.

1. Gerra zibila eta literatura: irizpide teorikoak*

Ugariak badira ere Espainiako Gerra Zibilari buruzko lanak, haien esparru teorikoa mugatu dezakegu. Alderdi teoriko horretan maila bi aipatu beharko lirateke. Alde batetik oinarri teorikoa, oroimen kolektiboarekin loturikoa eta, batez ere, 1925. urtekoa den Maurice Halbwachs-en *La memoria colectiva* (2004) liburuaren inguruan sortua. Liburuan, Maurice Halbwachsek oroimen kolektiboaren kontzeptua eta kontzientzia asmatu zituen, eta, beraz, proposatu zuen bazegoela, oroimen pertsonaletik at, historia gogortzeko beste bide kolektibo bat. Eta, bestetik, oinarri praktikoagoa, 1984 eta 1992 bitartean Pierre Norak argitaraturiko *Les lieux de mémoire*. Liburu horretan Pierre Norak identitate kolektiboaren irudimen-mundu sinbolikoa aztertzeke tresna deskribatu zuen.

Bide horiek jarraituz, eta Espainiako azterketak kontuan hartuz, aipatu beharko lirateke lan hauek: Joan Ramon Resinak eta Ulrich Winterrek (2005) argitaratu zuten *Casa Encantada. Lugares de memoria en la España Constitucional (1978-2004)*, nahiz eta zuzenean aipatu ez Gerra Zibila, baina ez da zalantzarik metodologia mailan liburu esanguratsua dela,

* Lan hau Eusko Jaurlaritzak babesten duen IT 851-13 LAIDA Ikerketa Taldearen lanaren barnean kokatzen da.

hain zuzen ere hurrengo urtean Ulrich Winterrek agertuko zuen liburu honen *Lugares de memoria de la Guerra Civil y el franquismo* (2006) aurrekari bihurtu baitzen.

Nobelaren azterketan aipagarria da Ana Luengoren lana (2004) *La encrucijada de la memoria* eta oso erabilgarria da. Gerra Zibilak eta memoriak izan dute azterketa zabala, eta lan batzuk aipatzearen ekar ditzagun hona Antonio Gómez López-Quiñonesen *La guerra persistente. Memoria, violencia y utopía* (2006) eta María Corredera González-en *La guerra civil española en la novela actual* (2010). Bide beretik, baina ikuspegi teoriko zabalarekin, doa Hans Lauge Hansenek & Juan Carlos Cruz Suarezek (2012) zuzenduriko *La memoria novelada* liburua.

Euskal esparrura etorrira, zuzentzen dudana LAIDA ikerketa taldeak Gerra Zibila eta euskal literaturari buruzko monografikoa bat eskaini zuen 2008. urtean Argentinako La Platako Unibertsitate Nazionalan, Raquel Macchiuci irakasleak (2010) atunduriko «I Congreso Internacional de Literatura y Cultura Españolas Contemporáneas» solasaldien inguruan. Interneten argitaratu ziren Euskal Herritik joandakoen emaitzak (Ur Apalategi, Ibon Egaña, Alvaro Rabelli, Iratxe Retolaza, Amaia Serrano), eta ondoren *Cuadernos de Alzate* aldizkariak berrargitaratu zituen ponentzia eta komunikaziook (45. zb., 2011) beste kolaborazio batzuekin. Bestalde, Euskaltzaindiak Udako Ikastaroa eratu zuen gai berberari buruz, eta 2009an egin zen eta *Euskera* aldizkarian argitaratu (2009, 2.2): *Gerra zibila eta euskal literatura* izenburupean eta Ana Toledoren zuzendaritzapean.

Bukatzeko, LAIDA ikerketa taldeak *Cuadernos de Alzaten* bildurikoa eman zuen euskaraz, liburu honetan: Kortazar & Serrano (arg.), *Gatazken lortzak. Euskal arazoan isla narratiban 1936tik gaurdaino* (2012). Bertan Amaia Serranok teoria aldetik egin dituen ekarpen serioak biltzen dira.

2. *Euskal Trajedia*. Argitalpen arazoak

Gabriel Arestiren (1933-1975) poesiaren ikerlari saiatua izan dugu Ibon Sarasola. Berak eman zigun Gabriel Arestiren poesiaren ikuspegi zabala, eta batez ere *Maldan Behera* lanaren irakurketa sinbolikoa, poetaren *Obra Guztiak* argitaratzeko Kriselu argitaletxean 1976an egin zen ahaleginean. Zorritzarez, lana ez zen bere helburuetara heldu eta *Poesiak I* eta *Poesiak II* tomoek ikusi zuten argia une hartan. Arestik zorte hobea izan zuen handik hamar urtera Karmelo Landaren gidaritzapean haren *Gabriel Arestiren Literatur Lanak* proiektua burutu zenean. Hamar tomo horietan Gabriel Arestiren lan ia osoaren berri ematen zaigu eta edizioa oso garbia izan da.

Luis Haranburu Altunaren argitaletxeak kaleratu zuen edizioan bada lan eta pasarte bat oso esanguratsua. Liburu solte gisa argitaratu zen eta *Euskal Trajedia* (Aresti 1976) izenburua zuen. Karmelo Landaren argitalpenean aldiz, ez dago horren berririk hain zuzen ere, Gabriel Arestik askotan egin zuen

bezala, argitaratu ez zuen testu hori ondoren moldatu zuen *Zuzenbide debekatua* (1960-1961) (Aresti 1986a: 284-296) lanaren 3. atal gisa, «Janjan moztaren erak» izenburu pean argitaratu zuelako. Gabriel Arestiri ironia-jokoa asko gustatzen zitzaionez, *Euskal Trajediak* badu anaia *Euskal komedia* gisa izendatu zuena.

Dena dela, ez da hori Karmelo Landaren edizioan (Aresti 1986b: 43-47), hamasei bertso berri bertsolarien erara ondua eta Arruzaren aurka jarria den poema, nahiz eta hori ere «Euskal komedia» deitua izan, baina poema bat da, ez poema luze edo osotasun baten inguruan onduriko testua. Ez, ez da poema hori, testu hori Ibon Sarasolak aipatzen duen *Euskal komedia eta trajedia* lana (1976: 86-87), zeren ohar hau jarri zuen bere lanean:

Obraren parte nagusia hirugarrena zen, «Euskal komedia eta trajedia» *Maldan Beherako B* egiturako bertsotan moldatua. Zati bat *Olertin* publikatu zen «200 puntu» izenburu pean (Sarasola 1976: 86).

Antzeko zerbait azaltzen da Juan San Martini Gabriel Arestik bidali zion antologian (San Martin 1982: 26-27). Hor *Euskal Komedia* izena ematen zaio *200 puntu* deituriko poemari, testu horren azken bertsoak aukeratzen baititu antologiarako. Beraz, *Euskal komedia* izenarekin poema bi ezagutzen ditugu: *200 puntu* deitzen dena Karmelo Landaren edizioan eta *Harrizko Herri Hau* liburuan Arruzaren aurka idatzitako poema.

Orain arteko oharrak kontuan hartzen baditugu, badira lerro bi azpimarratu nahi ditudanak. Alde batetik, garbia da Gabriel Arestiren lana, eta batez ere poesia, baina poesia soilik ez, *work in progress* bat dela, eta edizio kontuak oso garrantzitsuak direla bere lana aztertzeke eta ulertzeke orduan, honen segidan ezaguna da nola erabili zituen *Euskal Harria* (1969) liburuko poema zentsuratuak, ondoren *Harrizko Herri Hau* (1973) ontzeko orduan, eta ez da hain ezaguna *Ezkutu banatan saltzeko bertsoak* eta *Dukat banatan saltzeko bertsoak* lanetako testuek erabili zituela lehenik *Zuzenbide debekatua* eta ondoren *Euskal Harria* osatzeko eta biribiltzeko; ondorioz, Gabriel Arestiren poesiaren edizio-kontuak oso kontutan hartzekeak dira. Ikaragarri nahasiak dira, eta ikertzaileek kontu handiz ibili beharko dute.

Beste alde batetik, gero eta arreta handiagoa hartzen ari da *Maldan Behera* poemaren eta *Harri eta Herri* liburuen arteko ekoizpen poetikoaren azterketa. Bide horretan Karmelo Landa ikertzen ari da *Zuzenbide debekatua*, bere Doktore Tesirako, eta zenbait alde argitaratu ditu (Landa 2013). Dena dela, Aurelia Arkotxak ere (1993) arreta handia eskaini zion liburu horri bere Doktorego tesian. Nire aldetik, askorik ezagutzen ez den artikulua batean (Kortazar 2010) proposatu nuen ez zela gertatzen jauzi ikaragarria Gabriel Arestiren poesian, sinbolismotik poesia sozialera, baizik eta kontuan hartu behar zela 1960/1961 urteetan egindako poesia, eta, beraz, orain arte adierazten ziren Gabriel Arestiren poesiaren hiru aroak, lautan banandu behar genituela.

- a) Lehen poemak. Eta hemen ere aldeak daude, lehen poema kulturalisten eta ondoren datozen *Bizkaitarra* desberdinen artean.
- b) *Maldan behera*.
- c) Tarteko poemak, poesia sozialerantz egindako bidea: *Zuzenbide debekatua* nagusi dela.
- d) Harriaren zikloa.

Tarteko aro horri jartzen zaion arretarekin jarraituz, artikulu honen helburua *Euskal Trajedia* testuaren, edo zehatzago *Zuzenbide Debeekatua* liburuaren hirugarren atalaren azterketa eta irakurketa (horixe baita erabiliko dugun edizioa, Aresti 1986a) proposatzea litzateke. Testu horretan zuzenean adierazten baitu Gabriel Arestik Gerra Zibilaren gaia bere poesian.

Ikusi dugunez, bada, *Euskal Trajedia* liburuak edizio bi ezagutu ditu. Lehena Gabriel Arestiren *Obra Guztiak I. Poesia I* lanean agertzen da, eta itzulpenean molde bi erabili dira: *La Tragedia Vasca*, edo *Una Tragedia Vasca* gisa itzuli da. Poema sei bertso ahapaldietan ondurik dago. 13 silabako lerroak dira, zortziko txikiaren moldekoak batzuk (7-6), alderantzizkoak (6-7), eta inoiz 8-5 moldekoak. Ibon Sarasolak idatzi zuenez, *Maldan Beherako* B metrika egitura da berori: «B egiturako poemak 23 estrofakoak dira. Sei ahapaldiko [bertso lerroko] 13 estrofaz hasten dira» (1976: 54). Anjel Zelaietak, aldiz, honela azaltzen du, *200 puntu* kontuan hartuz, erabilitako metrika:

Poema irakurtzean ikusten denez, zesura zortziko txikian ohi den antzera ematen da: 7 eta 6 garren silabekin batera. Badirudi, bada, tertzeto kateatu, serventesio eta zortziko txikiaren arteko ezkontza egin nahi dela: baina argien dagoena zera da, Arestiren bertuosismoa (Zelaieta, 2000: 53).

Gabriel Arestik berak idatzi zuen metrikaz, berriro ere *200 puntu* aipatuz, edo orduan deitzen zuen bezala *Legearen oinarria (Mila puntuko poema berria)*:

Imitatu gura izan dot 'tercetos en cadena' delakoak erderazko 'kateazko hirukoak'. Eta orretarako zortziko txikitik egin dut abiadura... (Aresti, 1986c: 143).

Beste poema narratiboetan ere erabiliko du ahapaldi mota hori Gabriel Arestik. Lehen argitalpenean, 1976an alegia, poemak 6 bertso-lerro ditu eta segidan emanda dago. Baina, 1961ean *Eganera* bidali zuen *Zuzenbide Debeekatua*ren kopian, *Euskal Trajedia* liburu osoko 3. atala da jada, eta bost ataletan eta azken aldean jartzen den hitzaurrean banatua dago, ondoren Karmelo Landaren edizioan agertuko den bezalaxe. Aurelia Arkotxak hirugarren bertso bat duela esku artean idazten du bere tesian (1993: 43-44) Kriselu argitaletxearen artxiboetatik lortua.

Bigarren argitalpen honetan, aldiz, ahapaldiak hiru bertso-lerrokoak dira, eta gainera, *Eganen* azaldu zen aurkibidean bezalaxe, hiru zatitan banatua dago: a) Ekarrera. b) Jasoera. c) Betiera. Jon Juaristiren edizioaren itzulpean: a) La traída, b) La elevación, c) La eternidad.

Badago argitalpenean beste aldaketa garrantzitsu bat: atal nagusi bakoitzaren zortzina ahapaldiko zatitan banatzen da. Eta zati bakoitzean poemaren barneko tonu bat landu zuen Gabriel Arestik.

3. *Euskal Trajediaren sorrera*

Ez dira asko Gabriel Arestiren gutunetan *Zuzenbide Debekatua* liburuari eginiko aipuak. Baina badira baten batzuk, gehienak Joxe Azurmendiri eginiko gutunetan. Aurelia Arkotxak landu zuen bere Tesian ibilbide hori, eta poema deskribatu zuen (1993: 41-43)

Norbert Tauerra ematen dio lanaren berri lehen aldiz 1960ko otsailaren 20an:

Nire poema berria (Zuzenbide debekatua —Miren eta Joaneren historia-
ren hasiera—) bere erdian dago, eta uste dut aurtengo urrietarako akabatuko
dudala (Aresti 1986c: 142).

Joxe Azurmendiri baina luzeago idazten dio poemari buruz. Lehenean, 1961eko otsailaren 27an lanaren berri ematen dio, haren izena eta barnean zentsurarekin izan behar duen borroka jada asmatua, eta guretzako oso ezezaguna den Arestiren poemak Austineko Unibertsitatean Mitxelenak egin zuen argitaratzeko ahalegina:

P.S. Nire poema berria oraindik akabatu gaberik dadukat, naiz-eta Mitxelenak Austingo Unibertsiterako selezio bat eskatu zidan. Haren izena da ‘Zuzenbide Debekatua’ (La Justicia Interdita). Bide bilatzen diot oraindik akabatu-orduko ager dadin. Biderikan egokiena Frantzian bilatuko nuke bi hizkuntzeko edizio batean.

Hemen barnean ez dago zer-esanikan. Dena dela, osorik daukadanean, kopia bat (makina) igorriko dizut (Aresti 1986c: 145).

1961eko apirilaren 23rako Azurmendik jaso du kopia eta gustatu zaiola esan dio. Eta Gabriel Arestik honela erantzuten dio, Janjan lehen aldiz aipatzen delarik:

Eznaiz beldur. Zuk profezitatzen duzun bezalaxe, Janjanek gartzelan sartzen banau, ohore handia izanen da niretzako. Nire poemaren tesia egiazta-tua geratuko da. Nire haragian sentitzen badut tormentua, harro-harro ibiliko naiz, Jesukristok esan zuen bezala, zuzenbideagatik jarraitua izanen naizelako, eta azkenean dohatsua izanen naiz (Aresti 1986c: 146).

Janjanen berriro dago gutunetan, oraingoan 1961eko maiatzean:

Baina guzti hau ez duk posible, zerren Janjan hil den egunean (egun hori presentatu arte ez duk libertaterikan egonen), orduan etorriko dituk euskal zakurrak eta euskal hienak, eta betiko egoeran jarraikiko diagu, betiko kultura gabezia, beti borondate librearen ukaeran (Aresti 1986c: 147).

Gutunetan Gabriel Arestik poema Sariketa batera aurkezteko gogo duela azaltzen du maiz. Eta gai horrek hatzen du poemaren inguruko solasbidea. Nola aurkeztuko duen («Bai, Lizardi-sariketara presentatu dut» 1986c: 145), nortzuk izango diren mahaiko («Joane Gorostiaga apaiza, Manuel Lekuona apaiza eta Antonio Maria Labayen tolosarra. Niretzako etzegok tribunale desegokiagorikan» 1986c: 147), eta 1961eko maiatzean publiko egin zen erabakian *Zuzenbide Debekatua ez zuten saritu eta horregatik jarri zion izenburupean Arestik lema hau: «Lizardi Saria irabazi etzuen poema».* Orixe gertatu zen irabazle. Une horretan hasten da poesia utziko duela esaten eta bere dimisioa aurkezteko gogo adierazten. Maiatzaren 27an bere dimisioko poema famatuaren lehen bertsioa aurkezten dio irakurleari:

Eztut aurrerantzean euskal bertso bat ere eskribituko. Hau hemen eta Patagonian dakite. Asperkundearen aitzakiarekin presentatzen dut dimisioa (Aresti 1986c, 149).

Eta ekainaren 13an jartzen dio Azurmendiri bere dimisioaren gutun famatua:

AZKEN POEMA

Kantsazioaren aitzakiarekin
Nire gradotik
Dimisioa
Presentatzen dudalarik
Beste enplego
Nekagarria bat
Onartzen dut.

4. Poetika berri bat gai berri baterako

1959. urtean Norbert Tauerri bildaitako gutun batean Gabriel Arestik bere poetikaren berri xumea eman zuen hiru lau lerrotan. Honela idatzi zion Pragako lagunari:

Badakizu lehen poesiak idazten nituela Lizardiri eta gaurko beste olerkariri imitatzen nien, baina egun batean haien idaztankera etzitzaidan jatorra iruditu eta bertsolariak nola egiten duten, eta nola egin zuten behinolako

poetek estudiatzen paratu nintzen. Handik beste bat atera nintzen. Ikusi dut euskaldun poesi jator eta usariodun bat dagoela eta hari lotu natzaio (1986c: 140-141).

Idazkera «jator eta usariodun» horren fruitu izango da *Maldan Behera*, Norbert Tauerri esaten dion bezala, baina, era berean, zortziko txikiaren erabilpena indartzen duen neurrian, «tercetos en cadena» edo «kateazko hiruko» Arestik dioen bezala, metrikaren azpian idatzita *Euskal Trajedia*. Askotan aipatzen du Gabriel Arestik poemaren traza berria dela, metrika berria dela (1986c: 143), ez dagoela musikarik hori kantatzeko.

Poesia berriaren ibilbidean kontuan hartu beharko genuke, 1959 urte horretan Gabriel Arestik Txomin Peilleni egindako gutun batean esaten dion bezala, Blas de Oteroren poesia ezagutu zuela. Eta poetaren lana deskribatzearekin batera, haren poetika definitzeko ahalegin bat egin zuen:

«Para ofrecer una final obra cuyo nombre aún no ha elegido, pero que será tan antipoético que sonará como una blasfemia, y dice que su obra poética será ya sólo la palabra esa» (1986c: 135).

Biraoaren poetika bat. Horixe ari zen Gabriel Aresti mamitzen Lizardiren estetika utzi eta bertsolaritzara hurbilduz (bide batez Blas de Oteroren poetikara hurbiltzen zen heinean), beste estetika berria ontzen ari zenean. Biraoa poesiaren gune bezala. Eta horixe izango da *Harri eta Herri* poema liburuan agertuko duen estetika nagusia, «Zorrotzako portuan aldarrika» poeman agertu zuen moduan:

Birao egiten zuten (1986b: 17).

Antonek eta Gilenek: «Okerbideak ezpaitaki mintzaerarik,/ berdin tratatzen baitu/ erdalduna/ eta/ euskalduna» (1986b: 179).

Baina *Zuzenbide Debekatua* lanean, eta batez ere *Euskal Trajedia* poeman ikusia eta agertua dena. Biraoaren antipoetika bat.

5. *Euskal Trajedia*. Poesia kubista

Gorago aipatu dugunez, lau tonu desberdin erabili ohi ditu Gabriel Arestik poema ontzeko orduan. *Euskal Trajedia* lanak baditu joera nagusi bi azpimarratu behar direnak, azterketarekin jarraitu orduko:

- a) *Maldan Behera* bezala, eta ez da *Zuzenbide debekatua* poema alferrik deitzen: «Miren eta Joaneren historiaren hasiera», *Maldan Behera* «Miren eta Joaneren historiaren bukaera» zelako, hemen ere imaginario kristauak zerikusi handia du. Ekarrera, jasoera, betiere

- izenek Jesukristoren Pasioaren pausoak dira, eta berriro *Euskal Trajedia* horretan Gabriel Aresti Giza nagusi baten pasioa idazten ari da.
- b) *Euskal Trajedia* lanak, orain «Janjan motzaren erak» izenburupean, lau maila batzen ditu bere barruan, eta horregatik deitu izan dugu poema kubista, errealitatea ikuspegi askotatik lantzeko ahalegina delako, historia pertsonaletik, mitora. Errealitatea begiratzeko lau aldiak, bigarren argitalpenean oso garbi azaltzen direnak, gai bakoitzari zortzina ahapaldi emanez hauexek dira:
 - c) Lehen maila batean Gerra Zibilaren gaia aipatzen da, nafarrak nola sartu ziren Gipuzkoan eta Bizkaian.
 - d) Bigarren mailaren gaia Javier Batarritaren erailketa da (Anasagasti 2011; Egaña 2014; Santarén 2014). Ondoren zehaztuko dugu kontu honen nondik norakoa.
 - e) Hirugarrena biografikoa da berriro, Gabriel Arestiren bizitzan garai horretan den kontu nagusia: nola hautsi baitzuen berarekin jeltzale familiakoa zen andregaiak, hala hautsi zuen berak nazionalismoa klasikoarekin.
 - f) Mus-joko sinbolikoa.

Lauko banaketa hori lehen hiru zatietan gertatzen da, laugarrena desberdina da. Mus joko sinbolikoak bertso bi bakarri ditu, oso esanguratsuak, horixe bai.

Poema kubista deitu dugu, hain zuen ere maila historikoa (Gerra Zibila), gaurkotasunekoa (Javier Batarritaren heriotza) biografikoa (maitasun haus-tura), eta sinbolikoa biltzen dituelako. Errealitatea begiratzeko forma desberdinak, kubismoak egin zuen bezala. Lau maila horietan agertzen dira Janjanen gobernatzeko erak eta *Zuzenbide debekatuaren* arnasa.

Oso ezaguna denez, Janjan Francisco Franco (1892-1975) diktadorearen irudi mozturtoa da. Beste toki batzuetan, metaforaren zentzua garbiro azalduz Franfran deitzen du Gabriel Arestik. Egia da «Janjan» hitzak emango diola «janarekin» eta inauteriarekin lotura egiteko aitzakia.

Janjani egiten zaizkion aipamenak garbiak dira Joxe Azurmendiri bidalitako gutunetan, batetik askatasunaren aurkakoa da, eta kartzelan edonor sartzeko modua izango luke. Beste alde batetik, haren heriotza askatasunaren agerbidea izango litzateke. Eta Francisco Francoren inguruan osaturiko topoi bi ditugu begi bistan: diktadorearen aginte neurririk eta justiziarik gabea eta haren heriotzaren esperantza, egora politikoa eta eguneroko bizitza alda daitezen.

Euskal Trajedia edo azken izenburuz «Janjan motzaren erak», berriz, zentzu erlijioso baten azpian sorturiko poema dugu. Kristoren pasioaren pausoak adierazten dituzte hiru zatiek: Ekarrerak, Jasoerak eta Betierak (gogora dezagun itzulpenak askoz ere garbiago uzten duela zentzua). Poemak azalduko duena da Janjanek nolako erak agertzen dituen gizartea zapaltzeko. Lau joera ditu: lehena, gerra zibila; bigarrena, gerra osteko errepresioa; hiruga-

rren pertsonen bizitza eratuz, konbentzio sozialen bidez; eta laugarrena, sinbolikoa: galdua denean ere irabazi egiten du, errealitatea aldatzeko ahalmena du.

Gerra Zibilaren gaia, bada, loturik dago poeman beste maila jakin batzuekin: biografiarekin, garaiko historiarekin eta sinboloarekin.

Euskal Trajediaren lehen ahapaldian, garbi adierazten da zein izango den poemaren tonu ironikoa: «Orduan jaditsi ziren hara nafarrak/ gurutz gorria eta bihotza berriz beltza» (1986a: 284). Ironia askoz ere garbiagoa da, lehen edizioan: «gangar gorria». Alusioa da nagusi. Gabriel Arestik ezin du hitza zuzen erabili, eta, horren orde, aipamenak darabiltza, hala nola «zesar atorra beltzak» Italiako faxistak aipatzearren. Beste alde batetik, gurutze gorriak, san Andres gurutzeari egiten dio aipamen eta gorri eta beltz kontrasteak falangisten aipamena bilatzen du.

Baina alusio historikoa, gerran parte hartu duten guztien aipamena, eta nafarrek Euskal Herrian egindako triskantza, laster bihurtu du Gabriel Arestik etorkizunerako joera politiko arin bat. Nafarroa izango litzateke berarentzako ere Euskal Herriaren anaia nagusia: «Orduan jaditsi ziren... nora? ... nafarrak,/ euskaldun guztien anaia nagusiak». Baina Gerra Zibila euskaldunen arteko gerra gisa ulertu duelako: «Eta nola Kahin eta Abel zaharrek, / [...] halarik euskaldun herri artean ere,/erdikoa zuen zihortu nagusia[k]/, anaia tikiaren begirada pean» (1986a: 289). Dena dela, Gabriel Arestik etorkizunerako euskaldunen batasuna proposatzen du, faxismoak zapaltzen duen herri juduarekin identifikazioa proposatu eta Sion berrira heltzeko proposamena egin: «Eta egun batez Sion berri batera/ heltzen bagara gu, gezurrezko juduok», «Gurutz gamada bat daramagu sorbaldan,/ gure leinuz lotsaren ezaugarria». Bada egun horretara euskaldunak batera helduko balira, irabaziko lukete bere historia berrian, progromo berria egiteko eta faxismoaren aurrean garaipena lortzeko: «Orain Janjan eta Adolfo eta Pilato/ damutuko dira» (1986a: 294).

Jesusen mitemak (Kortazar 2010: 89), hau da, poema Jesusen pasioaren azpitemu gisa adieraztea, salbatzera datorren pertsona baten agerraldia eta Jesusen eta Arestiren buruarena arteko paralelotasuna hemen ere betetzen da. Gabriel Arestik adierazi zuen beharrezkoa zela pertsona nagusi bat agertzea herria salbatzera, eta puntu horretan bateratu egiten ditu Jesusen irudia eta berea:

gaz-ziklonetako golgotara jatorik,
Arbol oker batetik urkatuko naute (1986a: 290).

Aipamenak badu zerikusirik *Maldan Behera* poeman Joanesentzat asmatu zuen bukaerarekin, zalantzarik gabe.

Felipe Arrese Beitiak bide paralelotan jarri bazituen Foruak galdu zituen Euskal Herria eta Israel, Gabriel Arestik frankismo peko Euskal Herria Alemaniaren sarrasketian hil ziren juduekin konparatzen du.

Poemaren bigarren aldeak Javier Batarritaren erailketa kontatzen du. 1961eko martxoan Gasteizetik zetorrela, ETAkide batzuekin nahastu zuten eta tiroz erail zuten poliziak Bolueta auzoan. Aste Santuko asteazkena zen, eta bere emazteak «Astotxoaren» prozesioan zela jaso zuen berria. Ez da zalantzarik tragediaren datak osatu zuela Gabriel Arestirenean paralelotasun garbia: bere adiskide Batarrita Jesus berriaren metafora zen. Euskal Herria naziek triskantzatza handiz birrindutako herri judutarra bazen, Batarrita Jesus berria zen.

Javier Batarritaren erailketari buruzko artikulu asko aurki ditzakegu (Anasagasti 2011; Egaña 2014; Santarén 2014), baina, dirudienez, aipatzen ez den 1961ean *Euzko Gaztedik* argitaraturiko boletín bateko artikuluan oinarritzen dira bertsoak. Javier Batarrita Gasteizetik zetorren Peugeot gris batean. Boluetan guardia zibilak eta poliziak ziren zain, dirudienez Julen Madariagaren zain, honek ere marka eta kolore bereko autoa baitzuen. Baina garai horietan Madariaga Ingalaterran zen, eta, beraz, pentsatzekoa da poliziak ETA indartzeko asmoz Gasteizen batzar bat egin zuen Benito del Valle itxaroten zuela. Javier Batarritak 49 tiro jaso zituen eta bertan hil zuten. Bere adiskide bat larriki zauritu zuten. Inor ez zen epaitu, inork ez zuen justiziarik jaso. Hau da ekintzaren laburpena:

CUARENTA y nueve balazos. Cuarenta y nueve orificios. Casi medio centenar de trozos de plomo, nueve de ellos en la cabeza, se incrustaron en el cuerpo y acabaron con la vida de Javier Batarrita Elexpuru, un joven industrial de 33 años, representante de Lube, la famosa marca de motocicletas de Lutxana, y muy conocido en Bilbao por sus actividades dinamizadoras del ciclismo, su gran afición. Sucedió en marzo de 1961 —se han cumplido 53 años—, un crimen perpetrado por las temidas Fuerzas de Orden Público franquistas que confundieron a tres ciudadanos con miembros de ETA (Santarén 2014).

Javier Batarritaren atala elegia da berez. Joan den adiskidearen oroime-
nez egindako poema. Hasiera batean, poetaren eta adiskidearen eguneroko
joan-etorriak aipatzen ditu testuak:

«Nire laguna zen, nire lagun maitea.
Egiten genituen goizaldean musean [...]
Jokatzen genuen txoriso frijitua
Eta arno beltza koka-kola batekin» (1986:a: 285).

Bigarren pasartean Gabriel Arestik gerra osteko giroaren berri ematen du Javier Batarritaren biografiatik aldendurik. Testuan Batarrita nazionalismoaren eredua da: ikurrina maite du, atzerrira ihes egin behar du, eta gerra osteko zigor gogorra aipatuz, emakumeari ilea moztu eta paseatu egiten dute:

eta heren bilo guztiak mozturikan,
Paseatu zuten kale guztietatik,
Kapelurik buruan eraman gabetan.

Berriz itzultzen da Javier Batarriraren biografiara hirugarren zatian: txirindularitza zaletasuna («bizikleteroa»), eta tiroketa eta erailketa:

Ezpainetan zuen tango baten soinua,
Polizia batek gelditzeko haltua
Mitralleta batekin eman zionean.
Dokumentazio identikaria
Eskatu zioten: Atera zuenean
Ezpainetan ziarto isildu zitzaion
Haren tangoaren musika dotorea (1986a: 295).

Hirugarren zatiak frankismoak sorturiko gizartea kondentzen du. Hemen *Maldan Beheran* agerturiko Mirenen aurkako irudia sortzen du Gabriel Arestik. Agian, poemaren alderik ilunena dugu. Ezagutzen du Miren, jakin badaki noren alaba den, hirugarren zatian garbi azaldu dio gizonak nola ez duen maitatuko emaztea, eta hala ere, laugarrenean adierazi du poetaren aho-tsak ondoren ezagutu zuela haren jatorria. Garaiaren kronika gogorra aurkeztu du poetak zati horretan.

Honela mintzo da hirugarren atalean:

Janjanen alaba zen gure neska [...]
Eta esan nion: 'Nire neska higuina,
Barka zazu, baina eznago ni konforme
Zure aitak daraman gobernuarekin.
Gartzeletan daude mutilak giltzapean,
Eskoletan ezta egiarik ikasten,
Zerbait erreinu hontan usteldurik dago (1986a: 291-292).

Hamleten aipamen ezkutua bada ere hor, laugarren atalean argiro azaldu zaio poetari neskatoaren nondik norakoa:

Hura zen azken egun maitatu nuena
Enteratu nintzen haren leinuarekin,
Nor zen haren aita (1986a: 296).

Miren honen historiaren azpian berriz Gabriel Arestiren biografiaren atal jakina badago ere, azken batean nola apurtu zuen Zubiritarren familiakoa zen andregaiarekin, haustura gai historikoz eta politikoz estaldurik agertzen da: Neskak ukatuko du herriaren izenagatik.

Zerren hain baitago penaturik herria,
Ezen nahiago dudan nik ohorea
Nire benturarik hoberena baino (1986a: 296).

Janjanen eta poetaren arteko mus-jokoa da laugarren zatiaren gaia. Egia esan, absurdoaren mugetan kokatzen den mus partida dugu. Poetak ezin ditu

kartak ikusi, eta hala ere bere bizitza jokatzera beharturik dago, horrelakoa, hain itsua, delako justizia-eremu horretan. Alde batera utziko dugu Beldubai eta Goizparrai hitzekin egindako ironia. 1959an Manuel Arriandiaga (1876-1947) elantxobetarraren *Apostoluen ekintzak* gisa ezagutzen dugun Testamentu berriko liburuaren itzulpen guztiz garbizalean —eta ilunean— hitz biok «Bidalitakoen hitza» eta «Goikoaren hitz berria» adierazteko erabili baziren (ikus Laka 1987), orain Gabriel Arestik Francoren bizkarzainen izen gisa erabili ditu, eta joera absurdoan jarriko dugu arreta. Hain zuzen ere, Janjanek esku ona du, eta poetak erantzun behar dio kartak ikusi gabe.

Lau errege ditu, esku da, eta hala eta guztiz ere, arrazoi guztien aurka, galdu egingo du jokoak:

Lau erregerekin. Ezta eskubidea.
Ezta zuzenbidea. Eskua. Ta galdu (1986a: 296).

Partida irabazteko eskurik onena du, eta, nahiz eta irabazle izateko aukera guztiak izan, galdu egiten du. Diktadoreak errealitatea bere gustura aldatzeko agintea baitu.

6. Zenbait ezaugarri

Fartsa nagusia osatzen duen testuaren barnean badira zenbait ezaugarri estilistiko oso interesgarriak, Gabriel Arestiren idaztearen aberastasuna agerian uzten dutenak. Umorearen erabilera, ironia nabarra, alusioak, alegoria-rako joera, absurdoaren agerpena, errepikapen hutsak adierazpenaren jokoari lotuak eta abar.

Baina askoz ere interesgarriagoak dira esanahiaren aldetik agerian uzten dituen mezuak. *Euskal Trajedia* lanean lehen aldiz agertzen dira zenbait mezu ideologiko garbi, ondorengo garaietan itzala izango dutenak.

Euskal Trajedia poemaren barnean lau atal daude eta atal bakoitzak bere argumentu eta bere tonu propioa du. Gerra zibila zuzen-zuzenean aipatzen duen atal bakarra lehena da. Gabriel Arestik Gerra Zibilaren laburpen poetikoa eskaini du. Frankisten agerpena eginez, eta haren ondorioak agertuz. Baina poemaren garapenean badira zenbait arlo azpimarratzekoak.

- a) Oso interesgarria da Euskal Herriaren eta Herri juduaren artean egiten duen lotura. Gernika Sion berria izango litzateke, eta Gerra ondoren Naziek osatuko duten sarraskiarekin lotuko du Gabriel Arestik. Faxismoen arteko lotura (Hitler/Franko) garbia bazen ere, euskaldunen eta juduen arteko loturak badu zerbait berririk. Historian Euskal Herria beste herrialdeekin, eta batez ere estatua lortzen zutenekin lotzeko joera oso garbia izan da. Irlanda izan da adibide garbia. Ondoren etorriko ziren Kreta zein Argelia. Edo Israel, nahiz eta laster joera hori aldatuko den. Baina 1960eko hamarkadan Israel eredu bat zen.

- b) Ideia interesgarria da neurri berean euskal batasunaren aldeko ideia poeman. Faxismoak euskal izaera suntsitu badu, euskaldunen arteko batasunak aldatuko luke egoera, eta Iruñean agertuko litzateke euskalduntasunaren sena, italieraz ematen duen Danteren aipu zuzena eta guzti:

Dohatsu litzateke izan Nafarroa
Harmatuko balitz delmonte che la fascia,
Bizkaiarekin balitz adiskidetuko
Orduan Gaztelak eta Franko-herriak
Aragoi-herriak eta Mauritanian,
Ezlukete Iruñean parterik ukanen (1986a: 293-294).

Zoritxarrez ez da hori gertatuko eta Iruñeko plazan «gaz-ganbaraxka bat altxatuko dute» «mila kristo dotore han programatzeko».

- c) Ez da alde batera utzi behar Nafarroaren nagusitasuna euskaldunen artean. Nafarrak lirateke «euskaldun guztien anaia nagusiak», eta Gabriel Arestirentzat haiek dira anaia nagusiak. Zoritxarrez, ez da horrela betetzen eta «erdikoa zuen zihortu nagusia[k]». Gerra Zibila piztu dute eta «Kahin eta Abel» gisa aritu dira historian.
- d) Gerra Zibilaren gaia poemaren atal batek jasotzen du, batez ere. Baina Arestik lotura egin du ondoren sortzen den egoerarekin. Gerra ostea ere gerra zibilaren ondorioa garbia da, eta gerrak ekarritako diktadurak markatzen du bizitza:

Gartzeletan daude mutilak giltzapean,
Eskoletan ez da egiarik ikasten (1986a: 292).

Eta horren ondorioa da, neurri berean, errepresioa, atzerriratu beharra eta emakumeei emandako zigorra, eta azken puntuan Javier Batarritaren erailketa.

7. Azken hitza

Poema kubista deitu dugu *Euskal tragedia*, errealitate baten lau alde desberdin eman dituelako, errealitatearen Janjanen «erak» agerian utzi dituelako, diktadorearen agintearen moduak agerian jarri, ezkutuan zegoena argira ekarri. Gainera, alde bakoitza trataera poetiko desberdinarekin eman du: umore eta ironiatik minera, absurdotik elegiara, fartsa-itxuratik alusiora, deskribapen errealistatik adierazpen metaforikora.

Erabilitako tonuen aberastasunagatik, *Euskal Trajedia* Gabriel Arestiren poetika ezagutzeko ezinbesteko testua dugu.

Egilearen Bibliografia

- Aresti, Gabriel. 1976. «Euskal Trajedia». *Obra Guztiak. Poemak I*. Jon Juaristiren edizioa. Donostia: Kriselu. 366-391.
- Aresti, Gabriel. 1986a. *Gabriel Arestiren Literatur Lanak -1. Lehen poesiak*. Karmelo Landaren edizioa. Zarautz: Susa.
- Aresti, Gabriel. 1986b. *Gabriel Arestiren Literatur Lanak -5. Poesia argitaragabea. Azken poesia*. Karmelo Landaren edizioa. Zarautz: Susa.
- Aresti, Gabriel. 1986c. *Gabriel Arestiren Literatur Lanak -10. Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak*. Karmelo Landaren edizioa. Zarautz: Susa.

Aipamenak

- Anasagasti, Iñaki. 2011. «Matadlos». [<http://blogs.deia.com/anasagasti/tag/javier-batarrita/>] [Kontsulta: 2014ko irailean]
- Arkotxa, Aurelia. 1993. «Imaginaire et poésie dans Maldan Behera de Gabriel Aresti». *Anuario del seminario de Filología Vasca «Julio de Urkijo»*. XXVII-1. 3-239. [www.ehu.es/ojs/index.php/ASJU/article/download/8183/7329] [Kontsulta: 2014ko irailean].
- Corredera González, María. 2010. *La guerra civil española en la novela actual. Silencio y diálogo entre generaciones*. Frankfurt/Madrid: Iberoamericana/Vervuert.
- Egaña, Iñaki. 2014. «Javier Batarrita, la primera víctima». *Diario de Noticias*. 2014-03-27. [<http://www.noticiasdenavarra.com/opinion/foros/viewtopic.php?f=2&t=61380>] [Kontsulta: 2014ko iraila].
- Gómez López-Quñones, Antonio. 2006. *La guerra persistente. Memoria, violencia y utopía: representaciones contemporáneas de la Guerra Civil española*. Frankfurt/Madrid: Iberoamericana/Vervuert.
- Halbwachs, Maurice. 2004. *La memoria colectiva*. Zaragoza: Prensas Universitarias de Zaragoza.
- Hansen, Hans Lauge & Juan Carlos Cruz Suarez. 2012. *La memoria novelada*. Berna: Peter Lang.
- Kortazar, Jon. 2010. «El poeta Gabriel Aresti». *Cuadernos de Alzate* 43, 68-101.
- Laka, Itziar. 1987. «Manuel Arriandaga: berrazterketarako oinarriak (Hiperbizkaia-
ren historiaz)». *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo XXI*-3. 727-753. [<http://www.ehu.es/ojs/index.php/ASJU/article/view/7935>] [Kontsulta: 2014ko irailean]
- Landa, Karmelo. 2013. «Gabriel Aresti: Nazionalismoa eta Sozialismoa Bilbon eta Euskal Herrian». In Elkar lanean, *Bilbon, 2012ko irailaren 14an egindako Nazionalismoa ikertuz: nazionalismoa, demokrazia eta kultura I. Kongresuaren aktaliburua. Minutes Book of Research on Nationalism 1st Conference: nationalism, democracy and culture. Bilbao, September 14th, 2012*. EHU. 113-122.
- Luengo, Ana. 2004. *La encrucijada de la memoria*. Berlin: Tranvía.
- Macciuci, Raquel (arg.), 2010. *La Plata lee a España. Literatura, cultura, memoria*. La Plata: Ediciones del lado de acá.
- Nora, Pierre. 1997. *Les lieux de mémoire*. Paris: Gallimard.

- Resina, Joan Ramon & Ulrich Winter (arg.) 2005): *Casa Encantada. Lugares de memoria en la España Constitucional (1978-2004)*. Iberoamericana-Vervuert. Frankfurt. Madrid.
- Santarén, Enrique. 2014. «Batarrita, 49 tiros en una ejecución policial por error». *Deia*. 06-04-2014.
- Sarasola, Ibon. 1976. «Hitzaurrea/ Prólogo». In Aresti, Gabriel, *Obra Guztiak. Poemak I*. Jon Juaristiren edizioa. Donostia: Kriselu. 10-99.
- Toledo, Ana (arg.), 2009. *Gerra Zibila eta euskal literatura*. *Euskera* 54, 2.2. [http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_content&view=article&id=3107:qgerra-zibila-euskal-literaturanq-ikastaroa-egin-dute-euskaltzaindiak-eta-ehuk&catid=121:berriak&Itemid=619&lang=eu] [Kontsulta: 2014ko ekaina].
- Winter, Ulrich (arg.), 2006. *Lugares de memoria de la Guerra Civil y el franquismo. Representaciones literarias y visuales*. Frankfurt/Madrid: Iberoamericana/Vervuert.
- Zelaieta, Anjel. 2000. *Gabriel Aresti. Biografia*. Zarautz: Susa.